bena gaisqui eguliah bethi
punitu behar liqueçu.
1456. Justicia erenda içadaçu
çer nahi eran deçen
etcitadaçut hanbat eder
(h)ardieça hori hartu dien.

Prevosta

1457. Jaunaq eçar çie presouan
han behar du cerratu
eta bihar içanen da
interrogatu eta jugatu.

*Eçar Domingo presouna eta retira
Cristina Sablu Alexis
Jouan presouala ama eta aita*

Betrina

1458. (A) ene seme maitia
(çer) haurqueria eguin duçu
eniçun ez secula ouste
(h)artaco cinandiela çu.
1459. Eta orano ere
ecin dit sinhesten

bena cer aguitu den
eçin dit imaginatçen.

1460. Gincoua dela laidatu
a ene haur maitia
jouan duçu seculacoz (jouan)
ene countentament(ia).

Dominique

1461. A ene aita eta ama (maitiaq)
arauz eçagutu n(aiçiie)
ebasteco bicioriq ezuda(la uc)quen
arauz badaquicie.

1462. Au contrari ouhougnaq badaquicie
çounbat hastio nutian
hayen counduta tristia
eçin soffritcen beinian.

1463. Bena maleros duçu
mundian ere çorthisia
complitu içan dadila
gincouaren boronthatia.

1464. Bena gincouaq baçaquicu
ogueniq ezudala
içaten ahal den beçain
falxuqui acusatu niçala.

1465. Bena ama maitia
enia eztuçu estonagarri
Js bera ere etçena
accusatu hain falxuqui.

1466. Bena oro soffritu çitiçun
goure nahiz salbatu
bai eta nahi goure salbatu
khurutchian cruçificatu.

1467. Eta hareq galdu çian guero
ene amorecatiq biçia
justo duçu niq ere deçadan
uçhen paçençia.

1468. Baçaquit içanen niçala
injustoqui punituriq
bena esparancha dit celian
içan reconpensaturiq.

1469. Gandola hora ditadacie bai
nourbaiteq eçari sacolan

ni beno malerosago duqueçu
haren eni eçarlia han.

1470. Gogo hounez diriot
oguen hora pharcatcen
bai eta parca dieçon
ginco houna othoçiçen.

1471. Bai biçia baçaquit heben
dudala niq galduren
ichiliq eçari deitadala
beitut borogaçen.

1472. Injustiasco regla ororen grado
behar dit içan condenaturiq
bena aita eta ama maitiaq
ez othoi uçqhen aragretiq.

1473. Gaiça batez solamente bai
nahi çuntuquiet othoitu
çien bidagia orai
behar duçie continuatu.

1474. Ni çiçequi beçala
usatu despendioua eguicie
biguen plaçan eman
hirouren phartia betiere.

Alexis

1475. A ene seme maitia
bai jouanen gutuçu
eta çuq eran beçala
equinen diçuçu.

f. 31v

1476. Ukhaçu othoi corage
arima conserba eçaçu
egun batez baliman celian
algar icousiren diçuçu.

1477. Cer içanen den icous artio
ezcutuçu hargatiq phartituren
bena oraidaniq deiçuçu
adio tristia eraiten.

*Pot eta besarca equin
biaq retira.*

Jalqui Servieta Prevosta jar erditiaq

Prevosta

1478. Jaunaq presouner houra
behar duçie ekharri
behar beitu ičan
bertan interrogaturiq.

Eçar presounera

Prevosta

1479. Cer dioq enne guiçouna
gandola hirequilan duq
eta ore jnjustificationetan
çer eraiten duq.

Dominique

1480. Enequila ediren bada
jauna hori baçaquit
eta aisa gorde nuquiela
ebaxi banu niq.

1481. Ene chacolan çela
enaquiçun deusere
çeren ezpeinian evastia
gogouan igaran ere.

1482. Bena nourbaiteq ditadaçu
chacolan eçari ichilic
areta ene oustez
eztit eguin ihouri ogueniq.

1483. Celietaco gincoua
harçen dit jaquile
haren ichilic ezpeitate
ez eguin deusere.

Prevosta

1484. Bai bena ene guiçouna
horic ezpatuq borogatçen
nic eçin ait ez
hi livratçen.

1485. Çeren eta gaiça galdia
hirequi beita ediren
ehiçala oguendun aren
nourq ahal du sinhesten.

1486. Eguiaren eraitera ait
ene guiçouna exortaçen
eta hala eguiten baduq
gincouaq ai lagunturen.

Dominique

1487. Jauna niq baçaquit
çuq eztuçula ogueniq
deusetan ere ni
ez sinhexiagati.

1488. Eregla ororen conforme
behar dit ičan condenatu
bena bai oguen gabe
behar dit biçia galdu.

1489. Bena esparancha dit
recompensa çelian
esparancha hareq ditaçu
idequiten crainta guçia.

Jalqui Antonio Pascalina

Prevosta

1490. Dominica deitçen den
estranger arastatu hori
acusatia ičan beita
gandola bat diela ebaxi.

1491. Eta çillar gandola
harequila beita ediren
nourbaiteq eçari deola chacolan
beitu alegatçen.

1492. Halaco maleros bat
içan bada ere
espalimbadu borogatçen
ezterot sinhex deusere.

1493. Arren condenatçen dut bai
eta ordenatçen
plaça publiquiala dala
chefaut bat eracariren.

1494. Eta hortara dela
conduititu çanen
eta haxa jalqui artio
lepotiç t)incaturen.

*Pascalina Antonio Prevot retira
Theodora aphaa chefauta eraiqui
bestiaq guibelian.*

T(theodora) m.

1495. Ene (haurra di) splacer dit
çer(en çiren co)ndenatu
ben(ə çoure a)rima puru
n(ahi ni)queçu) conserbatu.
1496. D(eusere ez)tuçu) inporta
(biciaren gal)tiçia
h(il oundoco ba)lin badie
aquisi(tcen c)elia.
1497. Acusatione horen coupale
baçira edireiten
conserba deçaçun arima
balin baduçi c)ofesatçen.
1498. Besoua çabalturiç Js Ct
çoure haiduru diagoçu
eta hareganaco çirade
egua c)ofesatçen baduçu.
- f. 32r
1499. Bena coupale çiradielariç
ezpalinbaduçu esplicatçen
ifernialat çütie
mementian c)oudenaturen.
1500. Exortaçen çütut aren
ginco handiaren çjenian
eguiaren c)ofesatçez
orai eni presentian.
1501. Eta bermatçen nitçaiçu
gincouaq deiçula pharcaturen
bai eta bere glorian
çelian plaçaturen.
- Dominique
1502. Ene aita spirituala
herioua ikhousten dit
bena acusaçione hortan
ogueniq batere ezlit.
1503. Ginco handia dit ofensatu
segurqui severoqui
bena inoçent nuçu
acusaçione hortan ni.
1504. Ginco jaunaq baçaquiçu
bera dit jaquile hartçen
eta esparancha dit çelian
dudala goçaturen.
1505. Bena gandola houra ichiliç
sacolan ditadaçi eçari
eta pharcatçen diot
bihotçez eçarliari.
1506. Bai eta ginco handia
othoituren ber guisan
pharca dieçon eta
eçar bere glorian.
1507. Pharcatçen dit gogoti
ene exai orori
eta pharcamentu gal(thatçen)
nihaureq gincouari.
- Theadore
1508. Ene haurra dioçun beç(ala)
oguen gabe bacira
aitorçen dit ounxa
plagnigarri çira.
1509. Bena hala balin bada
gincouaren boronthatia
galtha içoçu gracia
eta har pacencia.
1510. Benturas ene haurra
çoure bonneuriq handiena duçu
moyen irous batetan cellian
içanen beitçira plaçatu.
1511. Othoi eçaçu Virginia Maria
aratecarisa daquiçun balia
eta falta hountara
çoure ainguru beguiraria.
- Dominique
1512. Ginco handia çuq
oro icousten dutuçu
noula gal eraçitçen nayan
ounxa badaquiçu.
1513. Ifernutic beguieraci içoçu
bere arima tristia
eni ere othoi jauna
conserba içadaçu enia.
1514. Eta hayen arima ere
hil oundouan reçevi
adora ahal çitçayen
etermitatian algarrequi.

1515. Eremetitçen deitüt jauna
arima corpitça eta izpiritia
çeren eta çu beitçira
ginco veritable photerexia.

Urca eta eçar triatepialat.
Retira oro. Jalqui Betrina Alexis

Alexis

1516. Ene espousa maitia
haur duçula Compostalaco hiria
eliça catredal hountan duçu
Joundane Jaquibe plaçatia.

1517. Guitian bellarica eta
adresa ginco handiari
bai eta ouhoure eman
apostolu saintiari.

Bellarica erdian biq

Alexis

1518. Laidatu çiradiela jauna
celietaco ereguia
houna heltçeco berhain
eguin deicuçu graçia.

1519. (A) Jacobe saintia
(J)esusen apostolia
(gou)regatiq othoi eçaçu
(gi)ncoco photerexia.

1520. (Pla)ça diçağun arimaq
(hil) oundouan çelian
eta mundia consola
goure tristura handian.

Betrina

1521. O saintu illustria
martir eta apostolia
othoi eçaçu gouregatiq
celietaco ereguia.

f. 32v

1522. Harequila ebili cira lurian
biçi cinelariq mundian
egun cira plaçaturiq
berarequila celian.

1523. Othoi eçaçu premeti deçan
gu ere hara hel gutian

ginco handia laida eta
adora eternitatan.

1524. Ezpadu deithu ere
goure haur maitia berarganat
purgatoriouan balin bada
labur diçaçon phenaq.

Jaiqui eta han berian m.

Alexis

1525. Orai hox Christina
noubait ostatatçera
bihar goiçan phartitçeco
noubait repausatçera.

Retira erdialat berriz
berhala jalqui eta bellarica

Alexis m.

1526. Ginco jauna remestiaten çutugu
goure bidagiaren complitçez
eta eguin deicuçu
gracia guçiez.

1527. Eta retiratçeco
orai goure herrialat
othoi eguin eçaçu
gracia hala hala.

1528. Çoure esparancharequi
jauna phartitçen gutuçu
eta bidage orotan
bethi lagunt guitçaçu.

Jaiqui Alexis m.

1529. Hox Cristina gouatçan
guitian abia
ginco handian eçaririq goure
esparancha guçia.

Passeya Cristina (gm) Betrina m.

1530. Alexis behar diçuçu goure
hauraren galçuia ikhousi
eta behar diçuçu
igaran hanti.

Alexis

1531. A cer nahi duçu
hantiq igaraniq
çoumbait trufa edo
mesperetchu baiçiq.

laidatu çiradiela
çelietaco dohaxia.

Dominique

1532. Eta behar diçuğu
herri houra utçiriq
nountipaitiq igaran
haren saihexetiç.

1540. Bai (ene) ama maitia
har(ren pla)çera içañ duçu
ç(er na)hi miraculu
e(guiten) ahal beitu.

Cristina (gm). Betrina m.

1541. Ben(a behar) duçu jouan
P(revostar)en edireitera
b(içiriq ni)çala eta
(gin daquida)n libratçera.

Betrina

1533. Ah bena ecin
icousten baduğu ere
othoi behar diçuğu
icousi lecquia berere.

1534. Eta requiritcen çutut
ginco handiaren içenian
othoi eneçaçun refusa
ene desirian.

1542. A(la boztario) handian
e(niça ni e)direiten
bai (ene hau)r maitia
bertan (nuçu) jouanen.

Alexis

*Dominique eta Alexis han bara
Betrina passeya Oillascouaq eçar
eratcen Jalqui Theodora Prebosta jar Servieto.*

1535. Jaun handiaz naiçu
orai requiritu
eta cer nahi ginen den
etçutut nahi refusatu.

Betrina m.

*Passeya Dominica urcabian agueri
eta m.*

Dominica

1536. A ene aita eta ama maitiaq
gincouaq çutie laguntu
bidage hountan
bethiere assestitu.

1543. Jauna salutaçen çutut
çouregana nuçu giten
bai eta atentione
ene cençia galthaçen.

f. 33r

1544. Ene semia urcabian
jauna biçiriq duçu
eta hantiq livraçera
othoi gin behar duçu.

Prevosta

1537. Ni ere heben nuçu biçiriq
çien consolatçeco
eta ene inocençiaeren
ere publicatçeco.

1545. Cer dion emastia
a emazte miserabilia
eztun eztounagarrı bena
galdu dun galdu çençia.

Christina (gm). Betrina

1538. A ene haur maitia
possible deya othian
biçiriq orai heben
icousi behar çuntudan.

1546. Jouan adi ore bidian
eta jalqui adi hebetiq
ezpiritiaren ucqueitera
gomenda gincouari.

Cristina (gm). Betrina

1539. Ah ginco eguiazcoua
ala boztario handia

1547. Jauna enuçu minço
segurqui amexetariq

eta hain guti aldiz
ene çençia galduriq.

1548. Jauna segurqui biciriq
niq houra icousi dit
bai eta ere elhe
berarequi eran dit.

Prevosta

1549. O bai hire semia
orai dun han biçiriq
noula eta beitra
guereneco oillasco horiq.

*Guerena gorda
eta aguer bi oillasco biciriq
eguin ququruqu.*

Theadora

1550. O cer da haur
bada cerbait miraculu
jauna potençia hartara
jouan behar diçugu.

Prevot

1551. Bai dugun sinhex
eztela ez dudariq
eta lehen beno lehen
gouatçan bertariq.

Jaiqui eta jouan potenciala

Theadora

1552. Cer eran nahi da haurra
çu biçiriq çiren
cofesa oundouan nihauren aitçinian
casi hil çinen.

Dominique

1553. Gincouaq ene arima
bere glorian çipun plaçatu
bena ene inoçençia diçu nahi
içan dadin publicatu.

1554. Ene khorpitça eta arima
ukhen diçu permetitu
algarri diradian
biaq juntatu.

1555. Aguer nandin phizturiq
ene aita eta amari
eta çer aguitu den
eran diçadan hari.

1556. Amorecatiç deçan
eguin bere eguin bidia
eta occasione hountan
ere puni coupaulia.

1557. Goure ostaleraren alhabaq
propositione eguin çitaçun
sinhexi banu bekhatiala
biaq erori guntuqueçun.

1558. Gincouaq assestitu nindiçun
ukhen beinian verthute
eta haren inçertinien
refusatceco corage.

1559. Eta gincouaq nahi çipun
içan ledin lurian punitu
bestecoçat pharcaturen dioçu
dolumen hartcen badu.

1560. Hartacoz içan duçu ene arima
corpitçari juntaturiq
ene inoçençia ledin
içan publicaturiq.

1561. Ezpeiteçen justo ene asçaçieq
uqhen leçen desohoureriq
niçalacoz ni içan
Espaignan urcaturiq.

1562. Bena nahi bada orai
ni phizturiq niçan
(ene) arima eztuçu egonen
(ha)boro mundu hountan.

1563. (Ginc)ouaq diçu harçara bertan
(qhor)pitçetic separturen
(bai) eta ohico leqhian
(celia)n plaçaturen.

1564. (Eta) aita eta ama maitiaq
(hart)acoz dioçiet adio
(gloria) berartara
(çieq) ere hel artio.

1565. Eta sarri çirateque
çieq ere enequila han

gincouaren laitatçeco
eternitate orotan.

1566. Jouandane Jacobe handia eneçat
hanitz duçu baliatu
eta çientaco ere
orobat agitçen duçu.

1567. (Eta rejoui) itçaçie
(goure) asçaçiaç
(khountacez) noula diren
(equiazco) berriac.

2^e Prevosta

1568. (Ordenatçen) dut eta nahi dut
(leçhu) hountan berartan
eliça bat equin dadin
saintu haren ouhouretan.

1569. Eta ostatiaren alhaba houra
(jaunaç) arasta eçaçie
eta burdugnaz cargaturiq
bertan eçar çie.

Cristerot Servieto passeye
...retira oro Jalqui Pascaline

Servieto m.

1570. Arastadi nescatila
behar dun gin gourequi
ceren prevosta nahi dun
hellestatu hirequi.

Pascaline

1571. Jaunaç behar dut etçera
giten niz mementian
(bai) eta ere guero
bagouatça instantian.

Cristerot

1572. Ez ez etçerat
(ehiz) orai jouanen
(cer) nahi pretesta dugna
bai gourequi ginen.

Har artian Passeye.
Jalqui Prevosta Betrina, Alexis oro jar

Prevosta

1573. Alle ahalquegabia
affruntur misserablia
(erho)queria eta
(gachto)queriaz bethia.

1574. Hiç dun hiç causatu
jugamentu falxu bat beiton eman
eta inoçenta condenatu
coupaule çelacouan.

1575. Cer propos equin eyon
gente hoyen semiar
eta guero gandola
ichiliç sacolan eçari.

1576. Gincouaç eraguin din
(prova) veritablia
(auher) beiton deusere
(orai) heben uccatçia.

1577. Gincouari galtha içon
(miserablia) pharcamentu
(eci ore bicia segur)
(orai behar dun) galdu.

Pascaline *bellarica*

1578. Oh gincou justoua
enuçu ez digne
pharcamentu galthaceco
çouri solamente.

1579. Devriaz iça ninça
hain azcarqui tentaturiq
noun jalqui beiniça
nescatilen barnetariç.

1580. Ene adineco nescatiler
ni niz ni desouhouria
galduriç ahalquia eta
gincouaren crinta guçia.

1581. Arima chahu bat nian
nahi uqhen theyu eraçi
eta munduco perfeiten bat
ene passioniari imita eraçi.

1582. Azquenecoz falxuqueriaz
gal eraçi neron biçia
ene aldeti houra etçenez
crudelitate handia.

1583. Oguen dit oguen eta
merechi dit punitcia
jaun prevosta eguiçu equin
aren çoure equin bidia.

Prevosta
1584. Prova eta aitormena
orai oro badugu
eta jugamentia
behar dut errendatu.
1585. Plaça publiquan ičanen da
chefaut bat eraiquiriq
eta (nes)catila hori
ha(rtan) urcaturiq.
1586. Hil (oundouan) horen corpitça
bor(osta bate)tarat ourthoquiriq
iç(an dadin) nahi bada
(horez ire)xiriq.
- (Prevosta Alexis Betrina retira
Theodora) jalqui eta m.*
1587. (Ene haura) justoqui
(içan cira) coundenatu
eta (mundu) haur orai
behar (duçu) quitatu.
1588. Bena mundu haur eztuçu ez
passage chipat beiçi
eta oroq behar diçugu
jalqui hebetiq.
- f. 34r
1589. Eta hanitcheq diçu
bai biçia galtçen
pharcamentu gincouari galthaceco
ezpeitie denborariq ukheiten.
1590. (Çu)q dembora amens beituçu
gincouari behar duçu hersatu
(bere) glorialat
nahi çutian reçevitu.
1591. Haren misericordia
hanitzchetz haboro duçu
eta bere gloria saintian
(pia)çaturen ahal çutu.
1592. Solamente bihotçez egon çite
ginco handi hari
- arartecarisa balia daquiçun
adresa Virginia sacratiani.
1593. Celuco dohaxu orori
çoure ainguru beguirariy
hilçeco memento hountan
içan ditian çoure favori.
- Pascaline
1594. A jaun handia
celiaren creyaçalia
Js haren semia
curutchien cruçuficatia.
1595. Graçiariq çoure ganiq
eniqueçu niq merechi
bena orhit cite odola
ichouri duçula engatiq.
1596. ...adigneriq adresatcen nuçu
jauna çoure misericordiar
jauna othoi pharca
preserva neçaçu if(emuti).
1597. O Virginia sacratia
ene ainguru beguir(ria)
...çaquitzade oth(oj)
mementho hountan ba(ña).
1598. Jauna remetçen deiç(ut)
ene ispirritia
çu çiradiela
ginco veritablia.
- Urca eta ourtouqu tria(tepi)alat
retira . Fin.
Jalqui Isabela ereguigna
Espagnaco Rodrigues governadoria
Fereo Carles lehen biaz jar*
- Isabela m.
1599. Jaunaq Americatiq
badut berri gaistoriq
hanco habitantaq dira
Espaignaren countre revoltaturiq.
1600. Eta ene gentetariq
hanitz da ičan galduriq
eta arrastacouez eçin equin
hanbat resistenciariq.

1601. Herri houra galtçen badugu
plaingitçeco guinate
goure secours handienaq
jouaniq beilirate.

1602. Galku gunuque çillarra
galku gunuque urhia
eta casu urhentu liçate
Espaignaren comercio guçia.

1603. Goure genten favoritcera
behar duçe phartitu
corage saintu bathez
mementouan armatu.

1604. Bil eçaçie gente
arma eta diharu
eta salvage houraq oro
behar dutuçie attacatu.

1605. Eta gente menx baduqueçie
averti neçaçie
eta chercara ounce
houna igor eçaçie.

1606. Eraguinen dut niq ere devotione
heben harat beçain beste
gincouaq benedica diçan
American goure armadaç ere.

Rodrigo m.

1607. (Er)eguina ilustria
(ç)oure sujetaç gutuçu
(eta) çoure obeditcera
(oro) prest gutuçu.

1608. (Cor)jagia eztiçugu
(ora)no galduriq
eta behar tiçugu ikhousi
salvagiaç arangaturiq.

1609. Esperancha dit berri houneq
deiçugula igorriren
Espaigna guçia oro
beita alagueraturen.

Carles

1610. (Madame) salvage hayetariq
(nombre) handia duçu
(bena) haregatiq armetan
(gu) buruçaçgui gutuçu.

1611. Eta lagunen hiltçiaç
batere etçiçu loxatcen
beste hainbeste duçu
guibeletiq emendatçen.

1612. Bena oro gal artio
ezcutuçu loxaturen
gincouaq balima
guitçu favorituren.

Fereo

1613. Jouanen gutuçu madama
eta behar diçuçu lehiatu
eta hain hurun heltçeco
dembora hartu behar diçuçu.

1614. (Bici)aq gal artio
(ez)çutuçu çedituren
eta berriaq ardura
çitiçuçu igoriren.

1615. (Aste) oroz dutugu
(ouuçia) parti eraçiren
(eta) hala cer igaraiten den
(oro) duçu jaquinen.

*Isabela retira bestiaç
ouuçian passeya*

Rodrigo

1616. Ene lagunaç orai
gu heben guira
bena beste espagnouliq
heben agueri ezta.

*Retira erdialat
jalqui Sorporal
...Calesan Athemar...
...jar eta m.*

1617. Jaunac içaiz berri
orai averituriq
(espagnol) armada eli bat
dira houn helturiq.

1618. (Ici)gari diradiela
(ounsa) equipaturiq
(haieçui)la behar dugula guerla
(ez)ta bathere dudariq.

1619. (Edo) behar dutugu
(gure) herian buruçaqui
...haien eçuraq
(guihaureq) jan ossoqui.
1620. Bena ene aviser orai
behar dugu buhurtu
eta baqueriq heben
ez behin ere soffritu.
- Caleran
1621. Houraq behar baguntu
heben orai soffritu
khristien relegionia ere
behar guiniqueçu obserbatu.
1622. Çouintan genaturiq
guiçounaq behar ičan
eta bere counduta oro
beste guiçoun bati eran.
1623. Bacoiz elli bat ere beitia
hen artian edireiten
guiçouna ministro dela
beitie eraiten.
1624. Penitençia behardela osso equin
celialat jouaitecoz
ordenatcen beitu
barour eta phena franco.
- Roda
1625. Goure biciaq oro
galduren badutugu ere
defendatu behar dugu
hayer bethi ere.
1626. Bere erreperitione horequi
hebeti oro açaçatu
eta America orotan
livertatia aquisitu.
1627. Ezpeitugu behariq bathere
hayetariq gobernaçale
a(chisetan) behar dutugu eçari
ba(tere u)tçi gabe.
1628. Be(har dutug)u attaqui
e(ta comba)titu azcarqui
(eta biciaq) gal artio
(jagoiti ez) exi.
- (Dorso)ral
1629. (A sacre) jarnibleu
(behar d)jie phacatu
(oro erra) eraçiriq
(jan be)har çitiaigu.
1630. (Fripou) hayen araguietan
(nahi) nuq bai ounxa ase
eta egun oroc equin ene
chera houniq ere.
1631. Çounbait espagnoul
lehen ere jan diat
bena heben lardacen
ounxa hassi behar diat.
- f. 35r
1632. (L)ahardequiren çitit eta
(a)raguia eraeraciren
eta fricaçya houniq
hayen araguietariq equinen.
- Atemar
1633. Hox guitian jouan
behar dutugu attacatu
eta lehenago behar dugu hil
eçiez eta rendatu.
- Passeya Atemar
1634. Noun ciradeye espagnoul
erho buru nahasiaq
orai behar dutuçie
heben galdu biçiaq.
1635. Ouste ducieya hebenco gentec
buru duciela emanen
baten ehun bagutuq
eya loxa guirenaz içanen.
- Jalqui erditiq Fereø Carles
Rodrigas*
- Rodrigas m.
1636. Çer dioçie salbagiaq
eta cer araçou çunien
goure countre revoltaçeco
çieq batheq ere heben.
1637. Orai behar duçie arangatu
eztuqueçie cartieriq

jalquiren çiradeyen beno
lehen goure esquietariq.

Atemar

1638. Arraçoua çer dugun
ounxa baçaquičiğu
etzucieya nahi çieq
goure herria ussurp(atu).
1639. Hebenco habitant natura(laq)
nahi dutucie gena(tu)
bai eta cien (escupian)
esclavo rendatu.
1640. Bena ezpaciraye ren(datcen)
bathere egon gab(e)
erreriğ janen çutie(gu oro)
bathere utci gabe.

Rodrigas

1641. Ezcutuğ ez houna gin
hain bertan khenceco
bena bai jouan gabe çien
arraçouala arangatceco.
1642. Eta arin orai hox
behar dugu combatitu
eta arma phuntaz çorthia
içanen da desidatu.

Batailla Caleran (blesa)

Caleran

1643. Colpu char hounegati
eztiat deusere anxia
heben diat heben orano
corpitçeco indar gucia.
1644. Fripou (hoyer)
sarri (vengaturen) nuçu
bathere (utci) gabe
nahi citit degoillatu.
1645. Ciauristeye fripouaq
alo huillant çiteye
eta aldi hountan oroğ
maradicatu behar duçie.
1646. Oh Jupiter eta Tabalgan
noun milla debu çidie

alla ames oroğ
abandonatu naiçie.

*Batailla Carles blessa
Espagnoulağ escapa
bestiağ passeya eta retira
Jalqi Escugn.*

Carles

1647. Jaunağ colpu hountariğ
enuçu balima urhuntuco
bena enuqeçu ez haboro houn
sendo arthio combatieco.
1648. Eta gente guthiegui gutuçu
hainbeste etxayen goitceco
lagun bacoitz çounbait
bagunu amenx haboro.

1649. Eta loxa nuçu jauna
behar dudan exitu
bai eta herri hountariğ
Espaignalat retiratu.

Fereo

1650. (J)Jauna hain hurruntığ gin eta
(ou)nxax laida guiniquieçu
(o)rai hebentığ
(i)hessi eguiten baduçu.

1651. (B)ai bena retraitsen çer
(espa)rançha behar dugu
(estu)çia icousten alde orotariğ
(ungu)guraturığ gutuçu.

1652. (H)eltu gabetariğ ouncietara
escrasaturenn guitieçe
Ez ene lagunağ ni
sinhexi nahi banaieçe.

1653. Hox jalqi artio
guitian generousqui combati
biciağ oroğ gal edo
agui victoriousqui.

f. 35v

Rodrigas

1654. (E)hun exai bacoitçaren
(jaunağ) soieçe badugu
(exai) hainbesteren goitcia
impossible içanen çaiçu.

1655. (Bena) gincouaq balima
(emanen) du resoursa cerbait
(beste) gaiça bat (eni)
orai orhitçen çait.
1656. (Beste) orduz Ramira ereguia
(Clavisoeco) batailla handian
(Jondane) Jaquibeq
(laguntu) çütian.
1657. (Noun) morouen armada
(beitcien) garaithu
(eta tribut) infamu batetariq
(Espaignaco) resourna delibratu.
1658. (Gincouaq) orai ere
(photere) beraq badutuqe
(belharicaturiq) dugun othoi
(bai eta) Joundane Jaquibe.
- (Belharica eta minça Rodriga)*
1659. (O ginco) celucoua
(celietaco) ereguia
(iqhous) eçaçu jauna
(goure) estatu tristia.
1660. (Justo) bada goure guerla
(jauna) assesti guitçaçu
(orai) beste resoursariq
(jauna) eztiçugu.
1661. (Saintier) accordatu duçu
(jauna) don handiriq
(eta) Jacobe apostolia
(duçu) bat hayetariq.
1662. (Haren) meritien photerez
(jauna) ikhous gintçaçu
eta saintu handi hari
(lagunt) eraci guitçaçu.
1663. O Jacobe saintia
martir eta apostolia
othoi icous eçaçu
goure necessitalia.
1664. Espagnaco patroua cira
bai eta favoria
gincouaren plazera hala bada
othoi çaqizcu balia.

*Joundane Jacquibe gin
(çamari chou)lian eta
(sar triatian jouan espaignouletara
eta minça Jacobe)*

1665. Gincouaq cien oyhiaq
ençun dutu ucqhen
çien egun favoritçia
beteit premetiçen.

1666. Hox ditçagun attaca eta
batailla çitaye coragousqui
destruituriq içanen dira
guciaq oro rigorousqui.

*Oro jaiqui passeya
Jalqui Athemar Calevan Roda Sorporal*

Jacques

1667. Jaunaq behar duçe
guçieq oroq arangatu
espaignoulaq obeditu eta
khiristi gincoua adorat.

1668. Hoyen favoritcera
ni orai giten niz
eta çien sorthiaz
orai segur niz.

Athemar

1669. Guiçoun bacoiz bat ginagati
fripou hoyen soccori
ouste duca loxa guirela
baçindie ere (de b qui).

1670. Khençen ezpahiz
orai instantian
ene ezpata duquec mementhouan
hire bihotçaren erdian.

1671. Allo allo huillant adi
behar diaigu ikhousi
debria ezpaduq hire eguitecoua
duquec orai enequi.

(So)poral

1672. (Balin bad)ira ere
(ifernian) diren oroz lagunturiq
(bougre hou)mentaco eztiat
(demendren) anxiariq.

(Batailla) erho(gm). Turcaq hil⁹
bedera
 (qhiristiaq) bellarica

(Minça) Rodrigues

1673. (Remestia)tçen çutugu
 (ginco) handi celucoua
 bai eta çu ere Jacobe
 saintu eguiazcoua.

1674. Ginco handia çutugu
 laidatçen eta adoratçen
 bai eta çu ere
 bihotcez remestiatçen.

f. 36r

Jacobe

1675. Ginco jaunaq çien patru
 beincindian establitu
 haren plazerarequi batian
 ucqhen çütiet favoritu.

1676. Eta guerla justo orotan
 Espaigna oro favorituren
 gincoua guerla genteq
 badie maite ucqheiten.

1677. (A)meriqueignat itçaie
 instrui religionez
 içi ezttitan orai artio beçala
 (u)xutarçun handiez.

1678. Adio eraiten deiçiet
 maite ucqhen eçaie gincoua ere
 eta bethi ere gincouaren
 crainta ucqhen eçaie.

*Jacques retira erdialat
 besteaq passeya eta retira.
 Jalqui Satan eta mitila*

Satan

1679. oh hox Athemar gaiçoua
 ...hil...
 Jacques deithu harez
 ...attaquia.

1680. A cer probesonía dugun
 doba baten eguitemo
 badiçugu aragui franco
 fricoceyatan jateco.

1681. Ah Athemar gaiçoua
 (eçagun duq ourxa hacia inçala)
 (hire buriaq pheça liroq)
 quintale baten airia.

1682. Allo enne mitila behar (ditiagu)
 hebetiq queitatu
 probesione bat ederriq
 orai badiaigu.

Mitila

1683. Sira Athemar leheniq
 behar diçugu bolatu
 eta biscarriala eçarten
 behar naiçu laguntu.

1684. Ene countuz buria
 compaignaco animalena
 deçagun isseya
 bieq altchatçera.

Abia eta utçi

Mitila

1685. Alle ourde buria
 çer debru pheçia dia
 eztuçia possible içanen
 hounen altchatçia.

Satan

1686. Erdico sancó hortariq
 corda bathez behar duq estiratu
 eta guero erresta
 behar tiaigu tiratu.

Mitilaq esteca eta thira

Mitila

1687. Inpossible içanen duçu
 animal hounen iguitçen
 ouste dit peçu dian
 hamar quintaleren airia.

9. Ameriquanuaq oro (Bo, 1577. b.).

1688. Bena behar diçugu
beste manera bat phensatu
oro behar tiçugu
ounxa estecatu.

Oro esteca. Mitila m.

1689. Satan corda hortariq
çuq behar dutuçu tiratu
eta niq guibeletiq
nahi tit pousatu.

...tiaz jo.

Mitila

1690. Are are are
marcha marcha adelante
...an eratcera
...citaye.

Satan

1691. ...daquiala ene mitila
... coun adreta hiz
... aren aisa eguiteco
... perfekt hiz.

Dança eta retira.

Fin.

f. 36v

Dernier Dialogue

1692. Gincouaq gai houn deiciela
compagna ouhouratia
eta goça eraci deiçagula
bere gloria saintia.

1693. Gente hounaq (remestiaçen) çutleigu
(atencione) ucqhen beituçie
eta (goure) trageriari
(egun) so equin beituçie.

1694. (Aragret) badugu
(equin) gabez behar beçala
(bena othoi) behar deiquçie
(gente hounaq) pharcatu huxa.

(Passeya)

1695. (Eta)esparancha dut
(duçiel) consideraturen
(baqhoitçaq) eçin diela
(ahala beno) haboro eguiten.

1696. (Eta mundian) ezteza
(batere) guiçouniq
(huxiala) eta
(faltala) sujet ezteniq.

1697. (Hartacoz ez) estona
(goure artian) içaniq ere
(sustout) guirelacz gazte
(eta educa)cioneriq gabe.

1698. (Adan) goure lehen aitaq
(gutian ucqhen) çoçatu
(eta) presouna guçiaq
(faltala) erendatu.

1699. (Guiçonezco) oroq (falta hura)
(hounxa) dugu bor(ogatu)
becatiala sujet (oro)
(beiquintian) equin (ucqhen).

1700. (Horiçoro) consid(eraturiq)
(gente) hounaq esp(erauçia dut)
(Eta)çien hountarçunetan
(Con)fidantcha hartçen dut.

1701. (Nahi bada) içan guiren
(capable) representacequo
(uste dut) materiaren edertarçuna
(iduriez) admiratceco.

1702. Virgina Mariaq çerion
St Jacoberi eran ucqhen
hayen bien devotiouz çirenaq
gincouaq çutiela ençunen.

1703. Halaz aren devotionian
Compostela jouaitia
eta Jacoberen
corpitçaren visitaçia.

1704. Behar dugu behar sinhexi
meritu handia dela
eta gincouaren eretçian
Stu hora baliaturen dela.

1705. Bai eta devotione particular bat
harentaco dien ororen
nahi bada Galiciara
oro eçi diren jouaiten.

Erdian chapella esquiain


1706. Gente hounaq finitcen dut
orai ene discousa
eta cumitatçen deiçiet
plaça hountan dançaçera.

1707. Cumitaçen çütiet orano
guisa berian aihaitara

beno gente honaq haregatiq
nour çien etçhetara.

1708. Çien cerbutchari niz
orai heben baratcen
(eta) gai houn bat deiçiet
(beste) hanitchequi desiratcen.

*Fin avec 17 vers
A Tardets le 29
(A)out 1634
(C)e cayer appartient
au Sieur Jn Pre Saffores
Cordonnier de Tardets*



Tillac-en irudia

ZENBAIT HITZEN ARGIBIDEA

A

a countrari, alderantziz
abançu, ia
abilou, oa
adresatu, zuzendu
adret, abil
adreçu, antze, abildade
afrounteria, iraina
aihaltu, afaldu
ainguru, aingeru
acabi, bukatu
accaçatu, bidali
acquisitu, lortu
acquitatu, bete
alhatu, bazkatu
ale, oh!
aleta, erne hi!
alo, aizu
amens, gutxienez
anhartio, ordurarte
aquitu, xoil nekatu
aragret, pena
araincura, ardura, kezka
arangamentu, antolamendu
arangatu, konpondu
arcordatu, akordatu, ados jarri
arlogea, erloju
arrabitatu, biolina jo
arailleria, broma
arançun, arrantzan
arapostu, erantzun
arratecarisa, arartekarisa, bitarteko
arravage, hondamen
arrososi, berrerosi
athe, multzo

atiratu, bereganatu
au diable, deabrutara
auher, alfer
aurhide, guraso bereko seme-alabak
autenitu, obtenitu, lortu
avis, iritzi
axisatu, txiki-txiki egin
açote, zigor

B

vani, haizatu
barascaldu, bazkaldu
baratu, gelditu
barssa, itsasuntzi
bastitu, eraiki
beici, baizik
beno, baino
benturaz, akaso
berecatu, igurtzi
beris, berriz
veritable, benetazko
bellara, kopeta
berere, bederen, gutxienez
bermatu, seguru egon
billaiscatu, borrokatu
billarco, biltzar
billo, ile
bolatu, desegin
bonneura, zoriona
boronte, kopet
borosta, sasi
bortu, mendi garai
boztarioua, poza
brindo cavallero, (gaztelaniatik), edan dezagun jauna
brisatu, hautsi

bugre, bulgare, heretiko
buhurtu, kontregin
boucanas, boucounaz, musuzapi
bouneta, xapela
bourhau, birau
burhunguru, xoriburu
bourreu, berdugo
bursunça, burzuntza, makal zuria
boucheria, sarraskintza
bouchi, pixkat

D

devetatu, debekatu
dehordatu, kanporatu (<dehors_tik, kasu)
deliveratu, erabaki
delivratu, eraman
desseina, helburu
desira, nahi
despit, mespretxu
desplomu, oker
desprobatu, gaitzetsi
devru, deabru
diharu, diru
dolu, damu
drapeu, bandera

E

egoitsi, bota
eguru, itxaron
equi, eguzki
elhe, hitz
eli, batzuk
ellas, ai!
ellestatu, hitzegin
emparatu, gorde
eran, erran, esan
eremestiatu, eskertu
eretçe, alde
erho, hil
errendatu, bilakatu
esquierqui, duda gabe
esclaritu, argitu
escrasatu, desegin
estecatu, lotu
estonatu, harritu
estonu, mirespen
estrange, arrare
exemp, gabe
exixatu, esijitu
ezpragnitu, esparniatu, aldaratu

F

fabla, alegiazko istorioa
fachous, atsekabe handiko
feit, arrazoi, iritzi
fermou, irmo, firme
finitu, bukatu
fitetz, arin
flouchatu, ahuldu
fornitu, ornitu
franqui, oparo
fricaçyo, haragi-saltsa
fripou, bribon, pikaro
fouillatu, miatu, bilatu
foutre, "foutre" biraua

G

galguia, galera
galthou, eskaera
galthatu, eskatu
garnisou, guarnizio
garotatu, lokarriz preso estutu
geographa, geografo
guihaur, gerori
gouaitatu, goaitatu, zain egon
gobaleta, edontzi
golut, goloso, jale handia
gondola, edontzi
gorment, tripazale
gounca, ale neurria

H

haboro, gehiago
haiduru, zain
haina, gorroto
harigna, hondarra
hastio, gorroto, hiro, ustel
haxari, hatsarri, hasiera
haxisa, ik. axisa
herots, arrabots
hertu, ahuldu, ttipitu
hor, zakur
houn, on
houna, hona
huillant, ia
huillanttu, aldemeneratu
humblequi, umilki
huruntu, urrundu

I

igan, igo
 igaran, igaro
 igorri, bidali
 ihaur, herori
 ihoun, inon
 illi, euli
 imolatu, inmolatu, sakrifikatu
 inacione, su
 infisitu, zigortu
 ingoiti, hemendik aurrera
 injeignur, injeniari
 incapaule, ez gai
 interpenitu, fabrikatu
 irexi, irentsi
 irous, zoriontsu
 irousguia, eguzkia
 isseyatu, saiatu
 issi, ihesi

J

jagoiti, ik. ingoiti
 jaquile, lekuko
 jarnibleu, "je renie dieu" biraua
 jauqui, eraso, ekin
 genatu, poxelatu, molestatu
 gin, etorri
 gincou, jainko
 jujeraci, epaitu arazi

K

cabeilla, kabala, abere
 caquacia, kakatsua
 caldu, kolpe
 khantu, ixkin
 capaule, kapable, gai
 causitu, aurkitu
 caçhot, presondegi
 quechi (niq), nere partetik
 qhiristi, kristau
 quitatu, utzi
 coqui, pikaro
 compai, "compañero", lagun, (bearn.)
 conqueritu, konkistatu
 constret, ezin bestez
 contreditu, kontregin
 coragous, korajetsu, kuraios
 khorpitç, gorputz
 khoçatu, kutsatu

creinta, beldur
 coubart, kobarde, beldurti
 cumitatu, konbidatu
 coumpagna, konpainia
 cours, kurso
 cuperatu, errekuperatu

L

lahardequitu, larrutu
 laidatu, laudatu, goretsi
 langer, irisku
 lardatu, igurtzi, gantzutu
 larhote, "saltamontes", larrapote
 lachatu, utzi
 lachu, nagi
 leinhuru, argizpi, dirdira
 lettera, gutun

M

madame, andere
 machela, masaila
 macula, mantxa
 majesturu, maistru
 malur, maleur, zorigaizto
 manca, falta
 manhatu, agindu
 manu, agindu
 marbleu, "mort-dieu"tik datorren biraua
 medeci, mediku
 medilianoua, meridianoa, mediterranea
 meurtrier, asesino
 menx, falta
 miscandi, zerbitzari
 mitil, zerbitzari
 moyen, medio

N

negligamentu, ez axola
 noure, nere

O

ofesatu, ofenditu
 ore, hire
 oren, ordu
 oriçe, izan ezazue
 orphelin, umezurtz
 ostalersa, ostatuko etxekanderea
 othian, bada

P

phacatu, ordaindu
papa, aita
parbleu, parblu, "par dieu"tik datorren biraua.
parle sacrablu, "par le sacre dieu" biraua
pheçia, pisua
pec, txotxolo
pelegri, erromes
perturbateur, nahasle
pil(l)ar, harroin
plagnu, kexu
plaçatu, ezarri
poiltron, "poltrón" "poltrou" (gazt., beam.), alfer
poirus, "foireux", kakati
popat, pot bat, musu bat
potencia, urkabe
phoçou, pozoin
praube, pobre
prevosta, preboste, epaile
profeitu, probetxu
propi, fin, dotore
prounqui, agudo
prount, pronto, prest
punitu, zigortu
punçela, dontzeila
pouchancia, boterea
pousatu, bultzatu

R

rejetatu, arbuiatu
rejuitu, poztu
requiritu, eskatu
recontratu, aurkitu
remarqui, azpimarratu
remestiatu, eskerrak eman
renomia, fama
repausatu, atsedean hartu
repreñitu, berrartu
reçitatu, piztu
resolitu, erabaki
resoursa, medio
reusitu, irabazi
rusa, engainio

S

sacrabieu, sacrebleu, "sacre-dieu"tik datorren biraua
saldou, multzo
salutatatu, agurtu

sarri, laister
sastifatu, satisfetxo, kontent utzi
scribo, eskriba
sependent, halere
signagage, sinagoga
sira, jauna
songatu, pentsatu
sonu eguile, musikagile
sortha, zama
sufflama, sukar
suitan, segidan
soumis, peko
surtout, batez ere
susimis, peko
suspreñitu, harritu

T

tabalox, atabal hots
tacha, akats
theyu, zikin
thermaignu, termino
thira, kuluxka
trencatu, moztu
triate, teatro
tribailatu, lanegin
tribale, tribuko
troublatu, nahasi
trouble, istilu
trufatu, irri egin
troumpatu, engainatu
thou, xistu
touroustaz, urjario handika, pilaka
tçiauri, zatoz

U

uhaitça, ibai
ouhoun, ohoin, lapur
ouhourati, ohoredun
unuri, inurri, xinaurri
urhentu, bukatu
ourthoqui, urthuki, aurtiki, bota
uxu, itsu
uxutarçun, itsutasun

V


ventrebleu, "ventre dieu"tik datorren biraua
voila qui fet, hona zer egin

X

chahatu, garbitu
chahuqui, garbiki
chacola, sakela
changri, pena
chapela, eleizatxo, capilla (gazt.),
chefauta, "échafaud", "cadalso", urkabera
chercatu, bilatu
chicana, jukutria
chipat, chipi bat, ttipi bat
chispitu, erre
chou, zu kuttunki

Z

çaflatu, jo
çelerat, gaixtagin
celu, zeru
çiausteye, zatozte
cier, zuei
cihaur, zerori
çitcatu, zutik ipini
çoun, zein
çounbait, zenbait
çuhain(ce), zuhaitz



Baionako Herri Liburutegiko eskuzkribuaren akuarela (MS n^o 48). Khiristiak: soldadua, erregea eta erregina

IZEN PROPIOEN ZERRENDA

* Mitila, Prevosta eta Secretaria ez ditugu ezarri, pertsonaien izenak izan arren, arruntzat jo ditugulako. Zenbakiak bertsoei dagozkie.

A

Abital, Abiatat, 50, 589, 597, 607, 622, 625, 627, 770, 785, 786, 787, 805, 815, 848, 886, 889, 902.
 Adam, 273.
 Africa, Affrica, 455, 979, 980, 1014.
 Alexis, 1352, 1360, 1369, 1374, 1381, 1382, 1383, 1422, 1435, 1436, 1440, 1447, 1458, 1475, 1516, 1518, 1525, 1526, 1529, 1530, 1531, 1573.
 Alfonsa, Alfonse, Alfonçe, Alphonsa, 958, 971, 976, 977, 979, 988, 1019, 1045, 1048, 1050, 1053, 1112.
 Ama Virginia, And(e)re Dana Maria, 429, 431, 440.
 America, 72, 1599, 1606, 1626.
 Ananiaz, 239.
 Antonio, Antoine, 1383, 1384, 1422, 1424, 1426, 1428, 1435, 1440, 1441, 1455, 1490, 1495.
 Aragoue, 397.
 Asarias, 239.
 Asia, 218, 455.
 Athemar, Atemar, 1617, 1633, 1634, 1638, 1667, 1669, 1679, 1681, 1683.
 Athanasa, Atanasa, 17, 18, 152, 220, 367, 389, 391, 397, 414, 416, 422', 424, 536, 540, 541, 543, 544
 1194, 1201.

B

Bal, 157.
 Balençiano, 530, 531.

Barlaman, 1191.
 Betrina(I), 1144, 1150, 1154, 1158, 1174, 1228, 1260, 1264.
 Betrina (II), 1365, 1376, 1458, 1516, 1521, 1530, 1538, 1543, 1547, 1573.

C

Caleran, 1617, 1621, 1643, 1667.
 Carlos, Carleran (Don), 454, 501, 1102, 1107, 1114, 1120, 1194, 1206, 1223, 1226.
 Carles, 1599, 1610, 1636, 1647.
 Casatouerto, 1090.
 Caterina, Catherina, Catrina, 1144, 1147, 1150, 1154, 1158, 1163, 1171, 1175, 1228, 1260, 1265.
 Clamvigea, 66.
 Compostela, Compostala, 1049, 1353, 1370, 1515.
 Cristerot, 1428, 1435, 1570, 1572.
 Cristina, Christina, 1352, 1380, 1422, 1435, 1458
 1525, 1529, 1530, 1538, 1546.

D

Daramira, Ramire, Ramira, 66, 1019, 1071, 1102, 1105, 1107, 1120, 1122, 1131, 1141, 1188, 1194, 1214, 1217, 1221, 1226, 1228, 1234, 1239, 1247, 1249, 1256, 1271, 1280, 1656.
 Davit, 812.
 Diego (Don), 152, 164, 196, 971, 977, 978, 988, 1019, 1030, 1102, 1107, 1117, 1120, 1194, 1204, 1215, 1221, 1222.
 Dominga, Dominica (St), 73, 74.
 Dominique, Dominiqua, Dominica, Domingo, 1352, 1357, 1362, 1401, 1407, 1417, 1422, 1424, 1435, 1451, 1461, 1480, 1487, 1490, 1502, 1512, 1536,

1540, 1553.

DonaJouane Çuburuko, 1374.

Dorporal, 1617, 1629, 1667.

E

Elisabet, 978, 983, 997, 1002, 1007, 1008, 1009.

Erouma, Errouma, 455, 777.

Espagna, 4, 15, 61, 63, 64, 142, 231, 391, 404, 412, 481, 847, 938, 940, 958, 964, 971, 984, 1027, 1040, 1071, 1083, 1102, 1129, 1143, 1191, 1193, 1210, 1343, 1352, 1381, 1382, 1561, 1599, 1602, 1609, 1649, 1657, 1664, 1676.

Euphrasa, 17, 152, 205, 321, 389, 536, 731, 734, 835, 929, 944, 1120, 1135, 1145, 1210.

F

Fereo, 1599, 1613, 1636, 1650.

Fernando, 152, 161, 170, 191, 195, 229, 253, 255, 257, 267, 269, 271.

Phillpe, 152, 245.

Filleta, 31, 33, 36, 39, 40, 87, 563, 566, 567, 623, 642, 645, 649, 651, 652, 660, 672, 675, 676, 677, 683, 688, 694, 695, 713, 720, 728, 731, 736, 741, 743, 745, 749, 751, 753, 754, 755, 759, 771,

Francia, 1065, 1374, 1375.

Francisco, 1249, 1255, 1261, 1266, 1268.

Frisco, 948, 958, 963, 964, 967, 968, 969, 970, 971, 976, 987, 1068, 1205, 1227, 1284, 1304, 1312.

G

Galicia, 59, 938, 1704.

George, Gorgea, 450, 473, 500, 514, 515, 518, 525, 528, 529, 531.

Getsemane, 10.

Gibassar, 58.

Gomora, 375.

Grabiel, 283, 929, 1007, 1050.

Gracina, 980, 984, 994, 1004.

H

Hebro, 20, 404, 489.

Hermogena, Hemorgena, 31, 33, 36, 39, 40, 45, 87, 563, 586, 595, 619, 623, 624, 625, 640, 649, 651, 652, 719, 720, 724, 725, 729, 730, 741, 746, 747, 751, 754, 755, 756, 765, 767, 769, 771, 791.

Herodes Agripa, Herodez, 52, 818, 819, 826, 833, 848, 857, 863, 870, 876, 888, 911, 934, 1034.

Horto, 488, 509.

I

Indalessa, Indaleça, 17, 152, 211, 341, 536, 731, 744, 835, 934.

Iria, 939, 1025, 1044.

Isabela, 1598, 1615.

Isaya, Issaia, 657, 698, 812, 880.

Isica, Isice (Don), 17, 289, 296, 307, 309, 389, 536, 731, 835, 839, 929.

J

Jacobe, Jaccobe, Jouandane Jacobe, Jouandane Jacque, Joundane Jacobe, Joundane Jaqui, Joundane Jaquibe, St Jacobe, St Jacques, Jacques, Jaques, (Santiago), 4, 5, 14, 22, 25, 30, 32, 38, 39, 49, 92, 102, 167, 173, 193, 229, 238, 243, 244, 251, 254, 256, 261, 264, 265, 268, 273, 275, 286, 289, 294, 296, 297, 301, 303, 304, 307, 321, 330, 341, 352, 367, 389, 391, 393, 394, 397, 398, 401, 404, 405, 406, 416, 418, 420, 424, 429, 431, 432, 440, 442, 445, 495, 499, 500, 515, 516, 522, 536, 541, 543, 547, 548, 550, 551, 552, 553, 554, 580, 588, 590, 594, 596, 602, 629, 647, 649, 652, 665, 675, 687, 693, 697, 709, 721, 731, 732, 733, 738, 741, 742, 744, 745, 746, 747, 749, 751, 753, 754, 755, 761, 764, 765, 767, 769, 770, 788, 804, 810, 815, 816, 818, 826, 829, 841, 848, 863, 864, 866, 871, 878, 883, 884, 890, 894, 897, 904, 919, 921, 929, 930, 931, 932, 936, 938, 1032, 1056, 1239, 1239, 1249, 1287, 1311, 1326, 1335, 1338, 1342, 1343, 1370, 1410, 1516, 1519, 1566, 1656, 1658, 1661, 1663, 1665, 1667, 1675, 1679, 1703.

Jn (St), 1159, 1175, 1181, 1233, 1268, 1274.

Jerusalem, 14, 27, 218, 410, 430, 443, 536, 539, 549, 550, 554, 595, 640, 641, 704, 1033.

Jesus, Jesus Christ, Js Cte, Js Cht, Js Christ, Js Nazaret(ecoua), Jesusa, 4, 5, 6, 7, 8, 12, 16, 29, 41, 54, 93, 99, 102, 143, 146, 149, 219, 243, 244, 251, 537, 256, 260, 264, 268, 269, 270, 286, 422', 431, 443, 444, 446, 554, 559, 560, 562, 603, 665, 669, 671, 697, 698, 699, 704, 706, 715, 718, 722, 738, 755, 758, 810, 811, 814, 817, 821, 830, 831, 843, 880, 885, 890, 894, 898, 899, 905, 909, 914, 926, 931, 932, 934, 1034, 1055, 1056, 1057, 1199, 1204, 1205, 1244, 1253, 1282, 1290, 1293, 1327, 1465, 1498, 1519, 1594.

Josef, Joseph, 590, 603, 612, 630, 821.

Josephaz, 19.

Josias, Jossiaz, Josiaz, 51, 54, 589, 601, 623, 625, 770, 773, 815, 848, 877, 884, 886, 889, 903, 916, 922, 926.

Judea, 641.
 Jouhane, 96.
 Joundane Jouhane, (San Juan), 5.
 Joundane Jouhane Baptista, Baptista handia, 881, 912.
 Joundane Phetiri, (San Pedro), 8.
 Jupiter, 80, 160, 1016, 1298, 1299, 1325, 1646.

L

Lien (Bo. Raphael), 283, 301, 1008.
 Lisias, Liziaz, 51, 780, 782, 785, 797, 815, 818.

M

Mahoma, Mahome, Mahomet, 948, 956, 957, 1068, 1086, 1191, 1207, 1227, 1284, 1301, 1315, 1319.
 Maria Antonia, Maria Antonio, 978, 981, 996, 1005.
 Maria Salomea, 5.
 Maria Virgina, Virgina Maria, Maria, 19, 23, 382, 432, 442, 555, 611, 630, 697, 715, 895, 1511, 1702.
 Maroq, 949, 958, 967, 969, 972, 979, 988, 998, 1010, 1068, 1098, 1103, 1141, 1143, 1188, 1194, 1200, 1215, 1226, 1227, 1281, 1284, 1287, 1314, 1319, 1325, 1326, 1331, 1335, 1346, 1347.
 Messia, Meçia, 220, 556, 590, 603, 625, 631, 632, 656, 658, 671, 704, 706, 715, 722, 758, 811, 814, 821, 830, 854, 880, 882.
 Mizael, 239.

N

Nabuconodosor, 239.

P

Pascalina (I), 152, 159, 162, 223, 255, 978.
 Pascalina Pascaline, (II), 1383, 1386, 1398, 1403, 1417, 1426, 1490, 1495, 1570, 1571, 1578, 1594.
 Pedro, 1194.
 Persa, 1024.
 Pierra, Pierre (Don), Pre, 96, 1120, 1163, 1167, 1175, 1194, 1228, 1268, 1277.

R

Robert, 818, 848, 853, 858, 874.
 Roda, 1624, 1666.

Rodriges, Rodrigo, Rodriago, Rodrigas, 1599, 1607, 1616, 1636, 1641, 1654, 1659, 1673.
 Ruban, 919, 921, 923, 928, 1001, 1002, 1006.

S

Sacolan, Sacalan, 949, 1068, 1094, 1213, 1227, 1284, 1307, 1312.
 Samuel, 589, 616, 623, 627, 770, 776, 780, 783, 820, 848.
 Satan, 78, 88, 89, 91, 260, 261, 502, 512, 534, 597, 563, 568, 589, 725, 728, 747, 751, 755, 876, 1155, 1177, 1185, 1243, 1342, 1348, 1349, 1679, 1686, 1691.
 Second (Don), 152, 208, 330, 389, 536, 731, 741, 835, 929.
 Sedan, 948, 955, 1068, 1082, 1209, 1218, 1227, 1284, 1297, 1321, 1325.
 Seraphis, 157.
 Servieto, 1428, 1437, 1478, 1570.
 Sodoma, 375.
 Solido, 485, 498, 503, 505.
 Soliman, Solima, 948, 954, 988, 1068, 1076, 1099, 1101, 1102, 1120, 1127, 1131, 1141, 1211, 1284, 1294, 1323, 1325.

T

Tabalgan, 1191, 1325, 1645.
 Tabour, Tabor, 9, 95, 818, 848, 858, 918, 921, 922. Theadore, 1495, 1508, 1550, 1552.
 Teocrita, Temorita, 51, 780, 784, 801, 815.
 Thesiphon, Tessiphon, 17, 152, 214, 352, 389, 536, 835, 837.
 Theodoriq, 890, 899, 902.
 Theodosa, Theodora, Theodore (Don), Teodore, 17, 18, 152, 217, 404, 415, 418, 422', 423, 448, 449, 450, 484, 494, 500, 536, 540, 544, 1031, 1138, 1212, 1223.
 Torcat, 17, 304.

Z

Çaracoce, Şcaracoce, 18, 71, 391, 397, 486, 1031, 1032.
 Zebedeia, Zebeda, 5, 590, 602, 629.
 Cipri, Ciprian, Cipriano, 450, 461, 473, 509, 510, 513, 526, 532, 535.